

AITA GARATE HIL ZAIGU

Aita Jose Antonio Garate Unanue hil zaigu, frantziskotar azkoitiarra eta gure Santutegi honen zerbitzuan hainbat lan egindakoa. Tolosan, Gipuzkoako Goierri eta Nafarroako Mendialde euskalduneari eman ditu urterik ederrenak, eta ahal izan zuen bakoitzean Arantzazura begira saiatu zen bere lanean.

Bermeon hil zaigu, aurtengo Uztailaren 21ean, ia 90 urte zituela (1914-2003). Euskalgintzan, egile eta eragilea izan da; aldizkarien sortzaile eta zuzendaria; hainbat euskaltzaleren gidari eta babesa. Gizon on eta langilea.

Zahardadeak eta gaixotasunak urtean zerbait albora utzi baldin bazuten ere, Aita Garatek ongi beteta zuen bere heldutasunean gure herriaren aldeko lan luze eskerga (1945-1980).

Bizi-ibilera

Esan bezala, azkoitiarra zen Jose Antonio; espartinak egiten zituzten familia haietako semea. Maitea zuen oso bere jaioterria, eta hara itzultzen zen ahal zuenetan, batez ere herriko semeak ohoratzeko ("Aita Nemesio Otaño", 1980).

Hala ere, J. A. Garate Tolosan bizi izan zen gehienbat, ia hirurogei urtetan (1941-2000), eta urte askotan bertako kalearte eliz-herriarraren parte esanahitsua gertatu zen. Tolosarrek ere halaxe tratatu zuten, omenaldiak eskainiz.

Mutiko zela, Arantzazura etorri zen frantziskotar izateko asmoz (1926), eta handik aurrera fraidegaien ikas-ibilbidea bete zuen, harik eta 1938an apaiztu zen arte, hain zuzen gerra amaitzear zegoela.

Recuerdo de los Santos Ejercicios
Aránzazu, 15-21-I-61





Horrek guztiak aukera eman zion Garate-ri Arantzazun Errepublikaturteetan eratzen ari zen euskaltzaletasuna ezagutu eta beretzeko. Gaztelan pare bat urte iraganda (1939-1941), Euskal Herriratzeko parada izan zuen fraide gazte eta eraginkor honek. Garateren inguruan, eta lehendik zetorren tradizio-txoari jarraituz (gogora Aita L. Madariaga edo Joan R. de Larrinaga historialaria), Tolosako Komentu horrek bere alde kulturala ere garatu ahal izan zuen, 1945etik aitzina. Etxe honetako Nagusia ere izan zen, sei urtez (1958-1964).

Sermolari ona, eta gizarteko harremanetan iaioa, jendea bere ingurura bildu eta ekintza jendetsuak gidatzen abila izan zen. Bestalde, lan-taldeak eratzeko gaitasun ona erakutsi zuen, euskararen aldeko bere ekimenetan batik bat, fraide-lagunartean bezala herritar laikoekin ere.

Tolosaldean bizi arren, Goierri osoa ere izan zen haren lanen eremua, Nafarroako Mendialde euskalduna ahantzi gabe. Eskura izandako "Lambretta" berri eta zaharrekin kilometro anitz egin zuen, herri eta auzoetara iristeko.

Garate-ren urte emankorrenak 1945-



Jabier Unanue eta Florentino Arruti fraideekin

1970. etakoak izan ziren, hogeita bost urte bete-beteak, sasoirik onenean. Gero, garai berriek, zerbait etxera bildu zuten arren, euskarazko kazetaritza, batetik, eta maitea zuen historia, bestetik, ez zituen albora utzi, 1980a edo pasa arte. Maskal-aldi luze baten ondoren, Bermeoko fraideen Zahar-Etxera bildu zen 2000. ean, eta han hil da, bertako Anaiartean.

Garate euskalgilea

Frankismoaren garaiko aldizkako hiru argitalpenen sortzailea izan zen Jose Antonio Garate: *Arantzazuko Egunetgia* (1947), *Anaitasuna* (Gipuzkoa: 1950) eta *Goiz-Argi* (1958). Baina horien aurretik ere, 1944an hasi zen euskarazko lehenengo lanak argitara ematen.

Data horiek gogoan ditugula, gizon aitzindaria izan genuela esan behar da. Hiru argitalpenak zabalkunde han-



Tolosako herriaren omenaldia jasotzen

Maite izan zuen Garatek idazketa, eta gidatzen zituen aldizkarietan erruz bete zituen orri-aldeak, batzuetan izenordeak erabiliz (“Joxe Urkiola”, “Joxate”).

1970etik aurrera, euskal giro ozpindua-go hartan (euskara batuaren arazoa eta abar), bere lantaldearekin leiala izan zen (J. Oñatibia, Gaztañaga, Uxola, etab.), baina joera berriagoekin modu txarrean hautsi gabe. Orduan Tolosan etxe berean bizi izan ginen (1971-1977), Senitarte erlijiosoko harmonia onean, Aita

dikoak gertatu ziren gerora (gogora gainera, Bizkaiko *Anaitasuna*, gipuztaren babesean eta luzapen gisa Berriatuak sortutakoa: 1952-1976). Denak ere, ugari banatu ziren Euskal Herrian: Egu-tegi ezberdinek, 25.000ren bat ale inguru saldu zituzten urtero (Gipuzkoa, Bizkaia). Gipuzkoako *Anaitasuna* 12.000 harpidedun izatera iritsi zen, Garateren paperek gogorarazten digutenez.

Lan herritarra izan zen hori dena, aurrena eliz egitura sozialei guztiz lotua (Hirugarren Ordena, Arantzazuko Kofradia, etab.), baina betiere oso bere eskutik eraman zuena. Geroago (1970...), laiko-taldeekin osatua eta beregaina.

Joxe Antonio eta *jakin-darrok*. Ez dut hori sekula ahantziko. Korronte berrietan (izan ere, Kontzilio-ondorena ere bazen hura) bere burua gainditurik ikusten zuela esango nuke, baina euskaltzaletasunak aitzina egiten zuela ikusita, gizona pozik, bere bihotzean.

Garate, elizgizona eta Arantzazu-zalea

Garate eragile eta gidaria izan zen beti, euskalgintzan bezala Elizan ere. Ez zen parroki bulego-lanerakoa, baina Tolosako frantziskotarren zerbitzu oso estimatu batean (1940-1970: aitor-entzule lanean, alegia) milaka ordu



dezente eman zituen, Tolosaldeko fededun euskaldunen mesedetan. Predikari bezala, Gipuzkoan egindakoaz gain, Nafarroa euskaldunean pastoraltza euskalduna segurtatzen lagundu zuen Tolosatik. Urte-sail oparoa eman zuen Elduko auzoan igandero bere eliz-zerbitzuak eskainiz.

Maite zuen musika, eta Tolosako frantziskotarretan organo-jole leiala izan zen, eliza handi hura barrutik apainduz eta berari giro jantziagoa emanaz, herri-tarren kanta eta elizkizunak laguntzean.

Bestalde, esan beharra dago komentuko bizitzaren lekuko bezala geratu zaigula Aita Garate, berak idatzi baitzuen etxeko kronika denbora luzez, horrela, etorriko diren historialariei albiste-altxor aberatsa utziz, XX. mendeko zenbait hamarkada zuzenago eza-

gutu ahal izateko.

Arantzazuko Andre Mariaren maitale beroa zen Aita Garate, eta gerra-ondoan Arantzazuk bere erromes-tradizioa herri berrietara hedatu nahi izan zuenetik (1943...), laguntzen saiatu zen, luma erabiliz ez ezik herriak banan-banan ikustatuz. Hirugarrendar eta Kofradiakoekin elkar-lanean, urteroko erromesaldi berrien antolatzailea eta gidaria izan zen (1944-1964). Berehala, Aita Patxi Agirrek hartuko zuen horretan lekukoa.

Urte haietako Erromesaldiek Santutegiko historian ziklo berria ekarri zuten, lehenagokoen geografia hedatuz eta antolakuntza eguneratuz. Zeregin horretan azpimarratzekoa da Garateren ekarpena: 170ren bat Peregrinazio antolatu eta ekarri zituen Arantzazura.

XX. mendeko gure kulturaren eta erlijiotasun herritarraren historia egin nahi denerako, begiratzekoak dira Garate bezalako pertsonaiak, herritarren erlijiotasuna, besteak beste, euskaltasuna errespetatuz landu baitzuten eta garaiko moldeetan herritarrei leialtasunez eskaini beren zerbitzua.

Arantzazuk zor dionagatik ere bai, Antonio Garate frantziskotar adiskide zenari zorion betea opa diogu Aitaren Etxean, berarena ere bazuen aldizkari honek ez baitu galduta utzi nahi haren oroitzapena.

Goian bego, eta baita gure artean ere.

JOSEBA INTXAUSTI

2003-10-27



Anaia Patxi Beristainekin